

Funtsezko Jarduerak

Aplikazioaren diseinuaz aparte, gure funtsezko jarduera erabiltzaileak elkarrekin konektatzea eta beraien hizkuntza eta interesak kontuan hartzen dituen algoritmo baten bidez elkarrekin komunikatzeko bidea ematea da, hots, plataforma mantentzea. Honetarako, beharrezkoa da bezeroengandik keak jasotzeko sistema bat izatea ere, beraien arazoak konpondu ahal izateko.

Sistema hau edukiko ez bagenu, gerta liteke, adibidez, erabiltzaile harpidedun baten bikote natiboa erabiltzailearekin adostu bezala hitz egitera ez konektatzea; sistema honen bidez, guk bikote berri bat aurkituko genioke erabiltzaileari, eta ohiko bikoteari abisu bat eman. Hiru abisu jaso ostean, jada ezin izango luke harpidetzetatik ezer kobratu gurekin gertatutakoa justifikatzeko kontaktuan jarri gabe.



Diseinua (irudi guztiak CC lizentzia dute):
Lur planetaren irudia: Linuxerist
Bunbuiloa: Ilya, Simpleshow Foundation-en